

MUNGIAKO UDALEAN  
EUSKARAREN ERABILERA  
NORMALIZATZEKO PLAN  
ESTRATEGIKOA

2024-2027

- **PLAN ESTRATEGIKOAREN IKUSPEGIA**

Mungiako udalak, bere herriaren etorkizuna jomugatzat hartuta, egokitu beharra dauka udalerrriak datozen urteetan izango dituen hizkuntza ezaugarrietara eta betebeharretara:

Batetik, azken hamarkadetan mungiarren profila asko aldatu bada ere, gehiengoa euskalduna izanik (2021eko datuen arabera, derrigortasun indizea: 66koa da) eta heziketa zentro guztiak euskarazko eredukoak, argi dago, Udalak bere herritarrei zerbitzu guztiak euskaraz eta ele bietan eskaini behar dizkiela. Eta, bestetik, administrazioa eraldaketa prozesuan bete-betean sartuta dagoenez –on-line administrazioarako bidean hain zuzen ere–, badaki, zerbitzua behar bezala emateko, orain arte jorratu gabeko bide batzuk landu beharko dituela.

Zerbitzua euskaraz emateaz gain, jarrera proaktiboa erakutsi behar du herri mailan, udalerrriak etorkizunean izango dituen hizkuntza-ezaugarri/-ohitura horien eragile eta aitzindari bilakatu behar du.

Herri mailako lan hori egiteko, baina, ezinbestekoa da udal barruan euskaraz lan egitea. Izan ere, nekez erantzun ahal izango zaio herritarrari euskaraz, barruko lan gehiena erderaz bada. Hori dela eta, ahalegin berezia egingo da batez ere idazki-ereduetan, tresna informatikoetan eta langileen prestakuntzan.

Gainera, udalak, entitate den aldetik, bere langileei euren eguneroko lana euskaraz egiteko aukera bermatu behar die.

Kanpora eta barrura begirako erronka eta lan-ildo horiek dira plan estrategiko honen ardatz nagusiak.

Hala ere, gogorarazi behar dugu plan hau ez dela zerotik abiatutako plana. Orain dela lau urte onartutako plan estrategikoak inflexio-puntua markatu zuen; eta orain, leku horretatik oratu eta aurrera-bidean jarraitzea da plan hau diseinatzean dugun xede nagusia, lan-ildo garrantzitsuenetan sakondu eta egonkortze-lana eginda. Ez da, ez, handigurako plana, ez zenbakitan behintzat, bai, ostera, (diseinu-fasean izan garen politiko eta langileen ustez behinik behin) erronka sakonekoa.

- **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATZEKO ERABILITAKO METODOLOGIA**

Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa diseinatzeko Mungiako Udalak erabili du Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak VII. Plangintzaldirako proposatutako metodologia: KEMEN, zeinaren bidez erakundean euskararen kudeaketa eta erabilerari dagozkion 48 adierazle ebaluatzen diren, horietako 20 kudeaketaren ardatzaren baitan, eta gainontzeko 28ak erabileraren ardatzaren baitan. Horietako 14 adierazlek osatzen dute Adierazleen Aginte Panela, eta, bertan adierazten den moduan, 19/2024 Normalizaziorako Dekretuak zehaztu bezala, adierazle horien inguruko informazioa eman beharko zaio hizkuntza normalizazioan eskumena duen organoari.

## **PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATZEKO URRATSAK**

- **Mungiako Udalaren sistema egituratua sortu.**

Hemendik aurrera euskararen normalizazioaren erreferenteak Egitura Eragilea eta Lantalde Teknikoa izango dira Mungiako Udalean.

1.- Egitura Eragilea: helburu orokorrak ezartzeko, euron gaineko zuzenketak proposatzeko eta jarraipena egiteko batzordea da. Kideak: hiru ordezkari politiko, sailtako hiru buru (Euskera Sailarena barne), beste langile bi eta lan-batzordeko ordezkari bat. Urtean gutxienez birritan batzartuko da, eta bilera horiez gain, beharrezkotzat jotzen denean ere bai. Deialdiak Euskera Saileko buruak egiten ditu.

2.- Lantalde teknikoa: Erabilera Plana sailtara jaisteko eta bertan egingo duen bidea zehazteko (eta beharrezkoa denean, zuzenketa-neurriak aplikatzeko) batzordea da. Batzorde hori normalizazio teknikariak eta euskara zinegotziak osatzen dute.

Batzorde horrek gainera, eguneroko lanak emango duen esperientzian oinarrituta, proposamenak egingo dizkio Egitura Eragileari beharrezko deritzon.

Urtean lau/bost bider batzartuko da.

\*Lantalde tekniko horren osagarri izango da lehendik udalean dagoen "Hobekuntza Batzordea", sail guztietako arduradun teknikoez osatuta dagoena. Horretara, eraginkortasunari eutsita, ekidingo da beste batzorde bat eratzea eta teknikariei batzar-ordu gehiago jartzea.

## - Autodiagnostikoa

Autodiagnostiko bikoitza egin da Mungiako Udalean Plan Estrategikoa osatu ahal izateko: kuantitatiboa eta kualitatiboa.

**Autodiagnostiko kuantitatiboa** KEMEN markoa osatzen duten 48 adierazleak neurtu dira, eta horretarako datu-iturri bikoitza erabili da: batetik, erakundeko langileei zuzendutako galdetegiaren erantzunak (69) kontuan hartu dira, eta, bestetik, erakundeari zuzendutako galdetegiaren erantzunak.

**Autodiagnostiko kualitatiboa** burutzeko hainbat arloren inguruko hausnarketa egin behar izan da: Mungiako Udalean euskarak daukan egoera, orain arte euskararen erabilera normalizatzeko egindakoa, eta, azkenik, indarguneak eta hobetzekoak.

Bi diagnostiko horietako emaitzak kontuan hartuta, lehenengo eta behin erabaki da zein adierazlek osatu behar duten Mungiako udalaren plan estrategikoa, eta, hori erabakita, VII. Plangintzaldirako helburu kuantitatiboak zein kualitatiboak zehaztu dira, Mungiako udalak datozen lau urteetarako euskararen normalizazioan duen ikuspegia lortu ahal izateko.

## PLAN ESTRATEGIKOA OSATUKO DUTEN ADIERAZLEAK.

Mungiako udalean euskara normalizatzeko plan estrategikoa 27 adierazlez dago osatuta: batetik, Adierazleen Aginte Panela osatzen duten 14 adierazleez, eta, bestetik, aurrekoez gain, Mungiako udalak ezinbestekotzat hartzen dituen beste 11 adierazlez.

Nahiz eta, esan bezala, 27 adierazlek osatu Mungiako udalaren plan estrategikoa, VII. Plangintzaldi honetan lehentasunak zehaztuko dira eta horien arabera diseinatu eta garatuko dira urteko kudeaketa planak.

# 1. ardatza. KUDEAKETA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>39.90</b>	<b>119.70</b>	<b>44.00</b>	<b>132.00</b>	<b>4.10</b>	<b>12.30</b>

## • KUDEAKETARAKO ERRONKAK

- Erabilera Planaren kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzea eta, ondorioz, sail eta arloen ohiko kudeaketan; beti ere, sail eta arlo bakoitzak berera egokituta. Horretara, Erabilera Plana, Euskara Sailaren plana barik, erakundearen plan bihurtuko da eta ardura ere partekatu egingo da.
- Kudeaketa partekatu horren oinarria arlo, sail eta langileen partaidetza aktiboa izatea. Hori lortzeko, ezinbestekoa da langileak ondo informatzea eta partehartze-sistemak garatzea: batzorde mixtoak (Egitura Eragilea, Lantalde Teknikoa), galdetegiak eta denon eskura jarritako informazio-lekuak eta foroak.
- Era berean, ezinbestekoa da Erakundeak Hizkuntza Irizpide argiak ezartzea (lehendik daudenak berraztertuta eta eguneratuta), langileak ondo informatzea (berriak ere bai) eta jarraipen-sistemaren bat ezartzea apurka-apurka bete egiten direla bermatzeko.
- Kontratazioa zaintzea, Udalaren izenean egiten diren eta eskaintzen diren zerbitzuek hizkuntza irizpideak betetzen dituztela bermatzeko.
- Aipatutako erronka horiek guztiak erdietsi ahal izateko, behar-beharrezkoa izango da planak lidergo sendoa izatea, bai alde politikotik eta bai teknikitik. Batzuen eta besteen inplikazioak markatuko du, hein handi batean, planaren arrakasta.

\* Ardatz honi dagokion aurreikuspena egitean, Plan Estrategiko honetarako sortu berria den egitura egonkortzea izan da gehien-gehien kontuan hartu dena. Aurreikuspen-adierazleetan ez da zenbaki alturik jarri, sortutakoari ahalik eta etekinik handiena ateratzea baita helburu nagusia (kopurutan txiki baina asmotan handi).

## 1.0.1 arloa. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>50.00</b>	<b>30.00</b>	<b>50.00</b>	<b>30.00</b>	<b>0.00</b>	<b>0.00</b>

## • Egoera

Sistema egituratua:

Orain arte izan dugun jarraipen- eta erabaki-batzordea "Euskarako Prestakuntza Batzordea" izan da. Bost kidez osatutako batzorde mistoa izan da: zinegotzi ordezkaria, Giza-baliabideen Saileko burua, langileen ordezkari bi eta Euskara Saileko burua. Urtero, batez beste, 5-7 bider batzortu izan da. Izenak berak adierazten duen baino jardun zabalagoa izan du: ikastaroak, liberazioak, trebakuntza, harrera-protokoloak...

Plan Estrategikoaren jarraipena:

Tarteko balorazioa eta amaierako balorazioa egin diren arren, hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikorik ez da egin. Kasu batzuetan oso zaila delako, kasurako, ahozko jardunean, eta beste

batzuetan hainbat arrazoiengatik: udal-eraikin asko daudelako, zerbitzu asko kontratatzen direlako, aldaketa asko izan direlako administrazioan azken urteetan...

Dena den, behaketa batzuk egin dira, batez ere, ahozkoan; eta neurketa batzuk ere bai gai jakin batzuetan: kontratazio-irizpideetan, berariazko prestakuntzan eta baliabide informatikoen arloan.

Planak euskararen indarberritzea:

Orain arte inpaktu hori, nagusiki, kultura arloan eta, batzuetan, kirol arloan izan da. Hala ere, ikusten da, bai, badoala zabaltzen beste arlo batzuetara ere (Lurralde arloko ELEak...).

#### • **Egindakoa**

Sistema egituratua:

- Prestakuntzari buruzko planteamendu eta araudi orokor bat onartu da.
- Ikasturte bakoitzerako eta lanordutegi barruko eskoletarako irizpideak ezarri dira (2023ra arte, hortik gora Udalhitzek ezarritako bidea jorratu da).
- Trebakuntza programa onartu eta garatu da.
- Harrera-protokolo eredu bat onartu da.

Jarraipena: (ikusi egoera)

Inpaktua euskararen indarberritzean (ikusi egoera)

#### • **Indarguneak**

Sistema egituratuari dagokionez:

- Azken urteotan langileak aktiboago daude.
- Orain arteko batzordeak eraginkortasun-maila nahiko altua izan du landutako gaietan.
- Gardentasun handia egon da eta eskatu da.

Eta horren guztiaren ondorioz, hobekuntza nabaria ikusi da langileek Erabilera Planarekiko duten atxikimenduan. Normaltasunez ikusteaz gain, beharrezkotzat jotzen dute hainbatek.

Jarraipenari eta inpaktuari dagokionez, eskasago ibilita ere, honako indargune hauek azpimarratu behar dira:

- Batetik, langile gehienak hizkuntza-irizpide nagusien jakitun direla, eta horrek erraztu egiten duela jarraipen hori, ez delako pertsona bakarraren pentzutan gelditzen.
- Planaren eta hizkuntza irizpideen jarraipena egiteko adierazle batzuk zehaztu direla (arlo jakin batzuetan).

Eta inpaktuari dagokionez, oro har, sentsibilizazioa handiago dela bai langileen, bai politikarien artean. Horretan, lagundu egin du zeharkako beste arlo batzuk ere apurka-apurka indarra hartzen egoteak (ingurumena, genero berdintasuna...).

#### • **Zer hobetu**

Sistema egituratuari dagokionez:

Lehengo batzordeak bere egitura eta egitekoak zabaldu behar ditu, Erabilera Planaren jarraipena modu integralagoan egin ahal izateko eta sail guztietara hedatu ahal izateko. Egitura hori diseinatu berri dago, Plan Estrategiko hau diseinatzeko hain zuzen. Berorri etekina ateratzea izango da helburua.

Jarraipenari dagokionez:

Urteko kudeaketa planari eta hizkuntza-irizpideei jarraipena egiteko adierazleak (eta tresnak) identifikatu edo diseinatu behar dira. Modu objektiboak eta erosoak aurkitu behar dira, jarraipen hori aldiro-aldiro egiteko aukera emango dutenak, betiere, astun bilakatu barik langileentzat. Hiru bide ezarriko dira datuak batzeko: baliabide informatikoak, sailetako buruak eta normalkuntzako teknikaria.

Inpaktua euskararen indarberritzean:

Teknikariak sentiberatu egin behar ditugu euskara modu zeharkakoan trata dezaten.

- **Helburu estrategikoak**

**1.0.1.1.- Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.**

**1.0.1.2.- Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.**

- **Adierazle mailako helburuak**

<b>1.0.1.1 Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
50.00	12.00	50.00	12.00	0.00	0.00	

<b>1.0.1.2 Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
50.00	18.00	50.00	18.00	0.00	0.00	

\* Plan Estrategikoa diseinatzeko osatu berri den egiturari eustea da asmoa, eta ahalik eta etekinik handiena ateratzea. Erronka ederra izango da.

## 1.0.2 arloa. LIDERGOA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>37.50</b>	<b>28.13</b>	45.00	33.75	7.50	5.63

- **Egoera**

Parte-hartzea:

Prozesuaren atal bakoitza bereiztu behar dugu: diseinua Euskera Saileko buruaren eta arloko buruaren esku egon da gehien bat, garapena, ostera, teknikari eta osterantzeko langileen esku, eta balorazioa Euskera Saileko buruaren eta langileen esku.

Azpirarratzekoa da, hori bai, aurreko Erabilera Plana inflexio-puntua izan dela langileen parte hartzean. Izan ere langileen parte-hartzeak eta kontzientziak gorakada nabarmena izan du eta hala erakusten dute langileen euren balorazioek ere.

Jarrera proaktiboa:

Legealdi honetan ordezkari politikoen jarrera aktiboagoak (planarekiko baino gehiago euskararekiko) eta parte hartze handiagoak berez ekarri dute proaktibitatea indartzea langileen artean.

Politikariek euren agindupeko teknikariek euskaraz dituzte harreman gehienak edo, gutxienez, ele bietan. Planaren garapenean egin diren aldaketa batzuk (plana hobetze aldera), langileek eurek proposatuta egin dira.

- **Egindakoak**

Alde batetik, Prestakuntza Batzordearen bidez lortutakoa aipatu behar da. Izan ere, batzorde misto horren bidez, langileen prestakuntza desblokeatzea lortu da, langile batzuei liberazio osoak, ordu bikoak eta eskola bereziak eskainita.

Bestetik, trebakuntzaren garapenak aldaketak handiak ekarri ditu, batez ere, trebakuntzaren beraren prozedurari eta idazki-ereduei buruzkoa, langileek eurek bultzatuta.

Bai batzordearen lanak eta bai trebakuntzak eragin zuzen-zuzena izan du inplikazioan eta barne-eskarian.

- **Indarguneak**

- Euskararen inguruan “bakea” lortu da eta, salbuespenak salbuespen, aldekotasuna. Erabilera Plana garatzeko egin diren ekintzek ez dute jaso kontrako jarrerarik, ez langileen aldetik, ez alde politikotik. Are gehiago, gogo onez jaso dituzte gehien-gehienek eta kasu batzuetan hobekuntzak proposatu dituzte.
- Ordezkari politiko eta langile gehienek gaitasun maila altua dute.
- Jendaurreko ekitaldi eta agerpenetan beti lehenesten da euskara, edo euskara hutsean izaten dira.

- **Zer hobetuak**

- Langileek parte-hartze zuzena izan behar dute planaren diseinuan, jarraipenean eta balorazioan, ez garapenean huts-hutsean. Horrek inplikazioa handitzea ekarriko du.
- Argi egon behar du helburuak zeintzuk izango diren, baina bitartean adierazle lorgarriak izan behar ditugu eta denek jakin behar dute zeintzuk diren.
- Politikariek planaren garapeneko puntu gehiagotan inplikatu behar dute (trebakuntzan eta dokumentazioaren sorreran ere bai).

- Denek egon behar dute oso ondo informatuta. Orain arte egin den bidea ez da txarra izan baina hobetu egin behar da, behin eta berriro gogoraraztea behar-beharrezkoa da, jendeari ahaztu egiten zaiolako, joan-etorri ugari daudelako...

- **Helburu estrategikoak**

**1.0.2.4.- Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.**

**1.0.2.5.- Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.**

- **Adierazle mailako helburuak**

<b>1.0.2.4</b> Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
25.00	9.38	30.00	11.25	5.00	1.88	

<b>1.0.2.5</b> Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
50.00	18.75	60.00	22.50	10.00	3.75	

Proaktibotasuna eta parte-hartzea lortzea ez da erraza izaten, kasu honetan gutxi izaten da asko. Helburua ohitura sortzea da, azken urteetako dinamikari eustea eta goranzkoa egonkortzea.

### 1.0.3 arloa. LANGILEAK

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>73.90</b>	<b>44.34</b>	78.80	47.28	<b>4.90</b>	<b>2.94</b>

- **Egoera**



a) Hizkuntza-irizpideak:

Udalak ezarrita ditu bere Hizkuntza-irizpideak (orokorrez gain, jendaurreko komunikaziorako berariazko irizpideak eta protokoloak ditu ezarrita).

Hizkuntza-irizpideok batzen dute Udalaren normalizazio-prozesuan langileek eta ordezkari politikoei egin beharreko guztia, beraz, hori betetzean dago gakoa. Alabaina, hortxe dago arazoa, izan ere, jarraipena egitea oso zaila da eta gehiago zentratzen gara jarduerak gauzatzean euron jarraipena egitean baino.

b) Informazioa:

Hizkuntza-irizpideen gaineko informazioa langile guztiei eman zaie eta, irizpideok langile guztiek kontsultatzeko moduko lekuan daude jarrita. Gainera, trebakuntza-txanda bakoitzaren hasieran ere aztertzen eta lantzen dituzte.

c) Langileen parte-hartzea ekintzetan:

Ekintzaren arabera izan da parte-hartzea, baina, oro har, ona izan da.

d) Langileen iritzia:

Kudeaketa plan honetan ponderatzen ez den adierazlea den arren, ezinbesteko osagaia da planari etekina atera ahal izateko. Are gehiago, aurreko planen garapenerako izan ditugun oztopoetako bat horixe izan da. Zorionez, azken planean langileek iritzi positiboa izan dute (ikusitakoak) eta horrek bultzada handia eman dio planari.

- **Egindakoak**

Aurreko puntuan esan bezala, Hizkuntza-irizpideak ezarrita daude eta langile guztiei azaltzeaz gain, euren eskura jarri dira modu digitalean.

Trebakuntzan parte hartu duten langileekin ere berariaz landu dira euren lanari lotutako hizkuntza-irizpideak, eta Planari balorazioa egin zaionean ere (tarteko ebaluazioa eta amaierakoa) irizpideak non dauden gogorarazi zaie.

Irizpide orokorrez gain, jendaurreko komunikaziorako (kartelak, hitzaldiak, ikastaroak, prentsaurrekoak...) berariazko irizpide eta protokoloak ezarri dira. Horien berri langile guztiei eman zaie aurrez aurreko saioak eginda, eta Planari lotutako dokumentazio guztia denek kontsulta dezaketen toki batean sartu da.

- **Indarguneak**

- Salbuespenak salbuespen, zerbitzu hizkuntzan nahiko ondo betetzen dira ezarritako irizpideak, bai ahozko jardunean eta bai idatzizkoan ere.
- Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz, eta eurotako batzuek aurrerapausuak egiteko asmo argia erakusten dute. Halaxe ikusten da galdetegiaren emaitzetan. Horrek lanerako lurzoru gozoa eskaintzen digu eta hortik etorri da azken urteetako aurrera-bidea.

- **Zer hobetuak**

- Hizkuntza-irizpideen inguruko informazioa eten gabe eman behar da, eguneroko lanaren ondorioz, albo batera utzita geratu ez daitezten.
- Lan-hizkuntzari dagozkion irizpideak aplikatzean, oraindik zailtasun handiagoak daude (zerbitzu hizkuntzakoak hobeto betetzen dira). Batez ere, kanpo-harremanetan eta harreman informaletan.
- Langileen inplikazioa eta parte-hartzea handitu behar da. Izan ere, elkar elikatzen dute eta euron ondorioz etorri dira orain arteko aurrerapausu guztiak.

- **Helburu estrategikoak**

**1.0.3.7.- Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.**

**1.0.3.8.- Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.**

**1.0.3.10.- Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.**

- **Adierazle mailako helburuak**

<b>1.0.3.7 Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
79.10	17.80	80.00	18.00	0.90	0.20	

Informazioa lehen ere ematen izan da, helburua da informazio hori langileek barneratzea, horretarako, beste zabalkunde-sistema batzuk erabilia.

<b>1.0.3.8 Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
77.90	23.37	85.00	25.50	7.10	2.13	

Langileek diote ondo betetzen dituztela hizkuntza-irizpideak, kontua ez da hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren aurreikuspena igotzea, ezpada ze hizkuntza-irizpideen interpretazioa egokia dela bermatzea.

<b>1.0.3.10 Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
42.10	3.16	50.00	3.75	7.90	0.59	

#### 1.0.4 arloa. GAITASUNA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>69.00</b>	<b>0.00</b>				

\*Langileetako batzuek euren lanpostuak eskatzen dien maila barik, ezagutza maila absolutua hartu dute erreferentziatzat.

- **Egoera**

Oro har, langileen eta ordezkari politikoen hizkuntza gaitasuna nahiko altua da. Politikarien artean %82k euren funtzioak euskaraz betetzeko gaitasuna dute. Langileen artean %86k dute egiaztatuta euren lanpostuei dagokien hizkuntza-eskakizuna, hau da, 117tik 16 dira egiaztatu barik dutenak, eurotako bostek 4.HEa dute egiaztatu barik (3.HEa dute lauk) eta beste bost obretako lantaldekoak dira.

- **Egindakoak**

Langileen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko hainbat ekintza gauzatu dira:

- Langileen gaitasuna zehazteko eta bideratzeko proposamen integral bat onartu da: “Euskarazko prestakuntzari buruzko jarraibideak”.
- Prestakuntza Batzordeak bideratu du prestakuntza hori guztia: 2019tik 2022ra emandako liberazio osoak (2), ordu biko liberazioak (18); baita orduen konpentsazioa ere, 2023an ebatzitakoa. Horrenbestez, urteetan blokeatuta egon den gai hau desblokeatzea lortu da.
  - a) Ahozkoa:
    - Trebakuntza, berez, gaitasuna hobetzeko ez den arren, tresna ona da horretarako ere: Kontu-hartzailtza saileko mintza-saioak eta Udaltzaingoko saio pilotuak, kasu.
    - Euskaraldiarekin ere egin da ahalegina. Lehenengoa hobeto atera zen bigarrena baino.
  - b) Idatzizkoa:
    - Ohiko liberazio eta ikastaroez gain, trebakuntzak ere asko lagundu du horretan, batez ere, dagokien titulazioa duten langileen kasuan.

Politikarien hizkuntza-gaitasuna hobetzeko, ordea, ez da ezer egin.

- **Indarguneak**

- Langileen hizkuntza-gaitasuna, oro har, oso altua da, bai ahozkoan eta bai idatzizkoan (bakoitzari dagokion mailan). Gainditu egin da arazo zahar bat: “berbaz bai baina idatziz ez” famatu hura.
- Langileak euren gaitasuna hobetzen jarraitzeko prest daude, gehienak behintzat.
- Argi ezarrita dago euskaraz lan egin ahal izateko beharrezko den prestakuntzak zenbat atal dituen eta nola bideratu behar den.
- Trebakuntza oso tresna lagungarria da.
- Udala, langile askorentzat, lan-tokia ez eze, euskaraz bizitzeko (bere neurrian ulertuta) eta euskera gaitasuna hobetzeko leku ere bada.

- **Zer hobetuak**

- Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez duten langileei euskara ikasteko dauden aukerak eskaini behar zaizkie, eta euskaraz lan egiteko kapaz direnak (kasurako, 3.HEa duenen kasuan) euskaraz jarri behar dira lanean, dagokien laguntza eskainita.
- Dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez dutenen kasuz gain, oraindik sail batzuetan badago zer hobetu, izan ere, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izateak ez du beti bermatzen laneko funtzioak egiteko gaitasuna. Horiei euren gaitasuna hobetzeko aukerak eskaini behar zaizkie.
- Ordezkeri politikoengan ere jarri behar da arreta, batez ere arloren bateko ardura dutenengan. Herritarrekin (elkarteekin, ikastetxeekin...) ez eze, langileekin ere harreman zuzena dute eta.

- **Helburu estrategikoak**

Arlo honetan ez da aukeratu helbururik, horrek, baina, ez du esan nahi Udalak ez duela lehentasunezko zat jotzen (hala erakusten du “zer hobetuak” sailean jarritakoak). Gertatzen dena da arlo honi dagozkion helburuak gauzatzeko jardunak “Prestakuntza” izeneko atalari lotuago ikusten dituela; eta, ondorioz, atal horren bidez garatuko direla gaitasunari dagozkion helburuak.

### 1.0.5 arloa. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>30.30</b>	<b>13.63</b>				

- **Egoera**

- Udalak komunikatu behin baino ez die egin udaleko erabilera planaren berri herritarrei.
- Ez dirudi herritarrek oso argi dutenik. Egia da, hori bai, herritarrek nahikotxo jotzen dutela Udalera euskaraz. Herrian euskararen kaleko erabilera %28 bueltan dabil, Udaleko 2018an HAZean egindako inkesta batek, ostera, erakusten du udalera ere %31k jotzen dutela euskaraz (ahoz). Egia da, hala ere, azken urteotan gero eta gutxiago direla aurrez aurre jotzen dutenak bulegora eta gehiago, ostera, euren izapideak on-line egiten dituztenak.
- ESEPen ganeko foroak hirugarrenez egin dira. Udal barruko normalizazioaren gainekorik ez da landu eurotan.

- **Egindakoak**

Arlo honetan ez da askorik egin, udal aldizkarian argitaratutako berri bi horietatik aparte.

- **Indarguneak**

Herritar askok modu aktiboan jotzen du euskaraz udal-zerbitzuetara, eta Udalak horri erantzuteko gaitasuna dauka eta hala egiten du (salbuespenenak albuespen).

- **Zer hobetuak**

Eguneroko lanean hizkuntza-irizpideak ondo betez gero, berez lortuko da herritarrek argi izatea zein den Udalak euskararen erabilera sustatzeko estrategia.

- **Helburu estrategikoak**

**Arlo honetako helbururik ez da aukeratu Plan Estrategikorako. Izan ere, administrazioak berez euskaraz funtzionatzeko betebeharra duela kontuan hartuta, ez da beharrezkotzat jotzen horren berri herritarrei ematea. Eguneroko arreta eta lan egiteko modua dira herritarrei helburu hori helarazteko modurik egokiena.**

### 1.0.6 arloa. HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>28,60</b>	<b>17,16</b>	<b>35,00</b>	<b>21,00</b>	<b>6,40</b>	<b>3,84</b>

- **Egoera**

Azken urteetan, kontratuen legea aldatu eta aplikatzen hasi zen arte (2018ko amaiera arte), nahiko sistematizatuta zegoen lizitazioetan hizkuntza irizpideak sartzea.

Sistema aldaketak, baina, dena irauli zuen eta gaur egun oraindik ez da lortu kontratuetan modu sistematikoan hizkuntza-klausulak sartzea. Horrek ez du esan nahi ez denik klausularik sartzen:

- Obretako kontratuetan ohar orokor bat sartzen da.
- Herritarrekiko aurrez aurreko zerbitzua eskatzen duten kontratuak (kultura, kirola, gizarte arloa...) banan-banan aztertzen dira eta dagozkien klausulak sartzen dira.
- Gainerakoetan ez da klausularik sartzen: udal barruko zerbitzuak, jendaurreko ahozko harreman zuzen argirik ez dutenak, hornidura kontratuak...

Gainerako irizpideekin gertatzen den bezala, honetan ere klausulak sartzeak berak zailtasunak ematen baditu, jarraipena egitea are zailagoa bilakatzen da (teknikari arduradun bakoitzak egin behar du, behaketa ez da beti erraza...).

- **Egindakoak**

- Herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzuetako lizitazioetan hizkuntza-irizpideak sartzen dira. Eta teknikari arduradun bakoitzaren esku uzten da euron jarraipena (egia da ez dela nahiko genukeen bestekoa).
- Jarraipenerako lagin bat hartu zen 2021ean, ikusteko ea sei hilabeteko epean zenbat kontratutan sartu ziren klausulak eta zenbat kontratu atera ziren ele bietan.
- Bizkaiko eta Arabako euskara teknikariak, unibertsitateko irakasle aditu baten laguntzarekin prozedura bat ezartzen ahalegindu dira.

- **Indarguneak**

- Epaitegien mehatxua etengabea den arren, oraindik 2016ko Legea eta 2019ko dekretua indarrean daude, eta Udalak eurok baliatzen jarraitzeko asmoa dauka.

- Udal-teknikariak euskaldunak dira eta nahiko inplikazioa dute, baita gaitasun-maila handia ere.

- **Zer hobetuak**

- Teknikari guztiek jakin behar dute euren kontratuetan hizkuntza-irizpideak sartu behar dituztela eta euren ardura dela. Alde politikoak ere jakitun egon behar du.
- Udalean prozedura argi bat ezarri behar da hau kudeatzeko, kontratazioko bestelako txostenekin gertatzen den legez. Hau da, protokolarizatu egin behar da.
- Teknikariei irizpide argiak eman behar zaizkie: non sartu, nola sartu eta zer sartu. Beti ere, Euskera Sailaren laguntza eskainita (hasieran, ezinbestean). Ezinezkoa izango da lehenengo urteetan ehuneko ehunera heltzea, beraz, lehentasun-zerrenda bat ezarri eta hortik jo beharko da.
- Jarraipena egiteko, kontratua bera egiten denean, kontrol neurri batzuk zehaztu beharko dira (kontratazio-idazkietatik kanpo geldituko direnak baina teknikariak argi eduki beharko dituenak).
- Ez-betetze kasuetan, jarrera zuzentzeko neurriak zehaztu eta aplikatu egin beharko dira.

- **Helburu estrategikoak**

**1.0.6.17.- Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.**

**1.0.6.19.- Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.**

- **Adierazle mailako helburuak**

<b>1.0.6.17 Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
25.00	3.21	40.00	5.14	15.00	1.93	

Aurreikuspenetan ageri den igoera hori baino garrantzitsuagoa da protokolo argi bat ezartzea eta teknikariak sentiberatzea. Hau da, egiten den hori hobeto koordinatzea eta antolatzea.

<b>1.0.6.18 Dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
50.00	4.29	50.00	4.29	0.00	0.00	

Kopuruan barik, kalitatean egin behar da saltoa, hau da, berrikusi eta berraztertu egiten diren horietan.

<b>1.0.6.19 Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
25.00	9.64	30.00	11.57	5.00	1.93	

Bigarren helburu honetan ere, aurreko beste batzuetan aipatu bezala, egiten den hori modu kontzienteagoan egitea eta protokolo bat ezartzea da helburua.

## 2.ardatza. ERABILERA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>60.40</b>	<b>422.80</b>	<b>67.61</b>	<b>473.20</b>	<b>39.02</b>	<b>50.40</b>

### • ERABILERARAKO ERRONKAK

- Jendaurreko zerbitzuan egon litezkeen zirrikitu txikiak desagerraraztea. Arreta berezia jarriz, ez bakarrik ahozko eta idatzizko harreman ohikoetan, baita sailek eskaintzen dituzten ikastaro, hitzaldi eta antzekoetan ere.
- On-line administrazioaren erronkari behar den moduan erantzutea bai herritarrei begira, bai langileei begira.
- Langileek apurka-apurka euren lana euskaraz egiten ohitzea, horretarako beharrezko diren tresnak eta baliabideak eskainita: programa informatikoak euskaraz (programak eurak eta bertan dauden idazki-ereduak) eta prestakuntza (orokorra eta euskarakoa).
- Udalak elementu proaktibo modura jokatzeko, eskaria sortzea. Hau da, enpresa publiko zein pribatuekiko harremanetan euskaraz egitea modu aktiboan.
- Kalitatezko produkzioa izatea bai kanporako, bai barrurako.
- Adierazle egokiak bilatzea eskaintzen den zerbitzua baloratzeko eta barruko lanari jarraipena egiteko.

Kudeaketari lotutako erronketan azaldutakoaren bidetik, hemen ere ez da aurreikuspen-kopuruetan salto handiegirik egin. Horrek, baina, ez du esan nahi ezarritako erronkak ez direnik handiak, hirugarren erronka hori, adibidez, datozen urteetan benetako administrazio euskalduna izateko ezinbesteko oinarria izango da eta.

### 2.1. eremua. ZERBITZU-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehienezko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	
<b>67.20</b>	<b>141.12</b>	<b>210</b>

#### 2.1.1 arloa. IRUDIA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>98.20</b>	<b>41.24</b>				

### • Egoera

- Agerraldi instituzional gehienak ele bietan egiten dira, gainerakoak euskera hutsean (adibidez, HAPORi buruzkoak, herri-antzerkiak, jaietako egitarauak...)
- Webgunea eta sare sozialak ele bietan daude. Webgunea osorik dago ele bietan, sare sozialetan, ostera, badira euskara hutsean argitaratzen diren mezuak (gutxiengoa badira ere).

- Errotulu gehien-gehienak ele bietan daude, ikus-entzunezko gehienak ere bai baina gero eta gehiago dira euskara hutsean sortzen direnak.
- Argitalpenak, iragarkiak eta publizitatea gainerako komunikazio guztia bezala, ele bietan egoten dira gehien bat, euskara hutsezkoak gora egin dute azken urteetan.  
\*Ele bietan: idatzizkoan, euskara nabarmenduta tamainan, kolorean; ahozko jardunean, lehenago eta luzeago.

Salbuespenak edo akatsak egon litezke eta egon badaude (ohiturak, esku asko...), jarraitzen den politika, ordea, oso argia da.

## • Egindakoak

Arlo honetan bide onean joan arren, oso arlo labana da. Batetik, langile eta politikari askok hartzen dutelako parte. Eta bestetik, ohitura zahar eta txarto ulertutako elebitasun eta adeitasun kontzeptuak gailentzen direlako oraindik ere batzuetan (gero eta gutxiagotan, hori bai).

- Hori dela eta, komunikaziorako berriazko hizkuntza irizpideak sortu dira. Hizkuntza irizpide orokorretan agertzen dena baino zehaztasun handiagoz aztertzen dute gai hau, izan ere, oso arlo zabala da. Gainera, irizpideak ezartzeaz gain, protokolo batzuk ere ezarri dira bertan.
- Komunikazioko hizkuntza irizpideei buruzko azalpena langile guztiei eman zaie batzar txikien bidez (5/6 langileko taldeetan).
- Karteleriarako eta jendaurreko mezuatarako kalitate protokolo bat dago ezarrita aspalditik. Protokolo horri esker ateratzen den era horretako dokumentazio guztia zentralizatzea lortu da eta, ondorioz, irizpideok hobeto betetzea.

## • Indarguneak

- Ordezkeri politikoek ondo betetzen dituzte arlo honetako hizkuntza-irizpideak.
- Politika argia dago gai honen inguruan: dena ele bietan (euskara nabarmenduta, bai idatzizkoan bai ahozkoan) edo euskara hutsean.
- Berriazko hizkuntza irizpideak ezarri dira eta langileei zabaldu zaizkie.
- Langile gehienak jakitun (eta gai dira) dira horretaz, jarraipena egin beharra dagoen arren.

## • Zer hobetuak

- Langile eta politikari gehienek nahiko barneratuta duten arren, jarraitu eta asmatu egin behar da mezuaren transmisioan.
- Hizkuntza irizpideak nahiko barneratuta izanda ere, ondo egongo litzateke identifikatuta izatea urtero egiten diren arlo honetako ekintza nagusiak, hau da, komunikazio gaietarako errolda bat izatea (pentsaurrekoak, iragarkiak...). Horretara, errazagoa litzateke kontrolatzea eta protokolo bereziak ezartzea.
- Elebitasun kontzeptuaren gaineko pedagogia egin behar da, berdintasunean oinarritu beharrean parekidetasunean oinarritu dadin.
- Euskara hutsezko, ahozko zein idatzizko, mezu gehiago sortu behar dira apurka-apurka.



Atal berezia merezi dute on-line administrazioari lotutako tresna guztiek (webgunean daude), horixe da-eta etorkizun hurbilean administrazioarekiko harreman gehienak bideratzeko tresna.

- **Helburu estrategikoak**

Arlo honetan ez da helburu estrategikorik aukeratu. Helburua orain arteko bideari jarraitzea da (nahiko zorrotz dago-eta jarrita) eta ezarritako hizkuntza-irizpideak ondo betetzen direla egiaztatzea, hau da, langileak sentiberatzeko programarekin aurrera egitea eta hizkuntza-irizpideen jarraipena egitea (1.0.3.7 eta 1.0.1.2). Ez da jarriko helburu altuagorik, eustea da helburua, batez ere, kontuan hartuta, administrazioa (gizartea bera bezala) eralketa-prozesu etengabe dagoela sartuta.

### 2.1.2 arloa. HERRITARREKIKO HARREMANAK

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>84.10</b>	<b>141.29</b>	<b>90.00</b>	<b>151.20</b>	<b>5.90</b>	<b>9.91</b>

- **Egoera**

- Lehenengo hitza gehien-gehienetan euskaraz izaten da, hortik gorakoan, baina, ez dago bermatuta herritarrei euskaraz egiteko eskaintza aktiboa egiten zaienik, kasu askotan hala den arren.
- Idatzizko dokumentazioa ele bietan bidaltzen da beti, salbu eta herritarrak eskaria euskaraz aurkeztu duen kasuetan, halakoetan euskara hutsean erantzuten zaio gehienetan.
- Zerbitzua euskaraz eskatzen dutenei euskaraz ematen zaie. Hala ere, asko dira euskaraz hasi eta gaztelaniaz amaitzen diren elkarrizketak.
- Ekitaldi gehien-gehienak ele bietan edo euskaraz izaten dira.
- Ikastaroen artean mota bi daude, estrukturalak direnak (1), kiroldegikoak eta musika eskolakoak adibidez, eta noizbehinkakoak edota puntualak direnak (2).
  - 1.1.- Musika eskolako eskolak (salbuespenen bat kenduta) euskaraz izaten dira, kontuan hartu behar da bezeroak adin txikikoak direla gehien bat.
  - 1.2.- Kiroldegiko bezeroen artean, berriz, adin guztietako herritarrak daude; beraz, adingabekoentzat denak dira euskaraz, eta gainerakoetan planteamendua ele bietan egitekoa da (ez da euskara edo erdera hutsezko talderik osatzen), ahalik eta euskara gehien erabilita. Langileek nahikoa maila dute ikastaroak horrela bideratzeko.
- 2.- Ikastaro puntualen kontrola eskasagoa da. Dena den, adingabekoentzako guztiak euskaraz eskaintzen dira; helduentzako hainbat, berriz, gaztelaniaz (gero eta gutxiago).

- **Egindakoak**

- Langile guztiei azaldu zaizkie hizkuntza-irizpideak eta arreta berezia jarri da herritarrekiko harremanei dagokien puntuetan. Beraz, langileak jakitun dira.

- Jendaurreko lanpostuetan euskara maila ona duten langileak jarri dira.
- Zerbitzu batzuei ahozko arretarako trebakuntza berezia eman zaie.
- Idazki-eredu berriak sortzen dabil Udala, pandemiaren ondorioz abiadura handiago hartu du eta on-line administrazioan sartzeko prozesuak. Eta langileei horren inguruko trebakuntza eskaintzen zaie.
- Euskaraldiak ere baliatu izan dira, batetik, herritarrei gogorarazteko udala Arigunea dela eurentzat, eta, bestetik, langileen inplikazio maila sendotzeko. Lehenengoak (maila pertsonalean egindakoak) eta bigarrenak (Arigune moduan) hobeto funtzionatu zuten hirugarren Euskaraldiak baino.

#### • Indarguneak

- Langileek –eta politikari gehienenek– gaitasun maila ona dute herritarrei behar den moduko euskarazko arreta eskaintzeko.
- Langileak informatuta daude eta eurotako askok modu aktiboan artatzen ditu herritarrak euskaraz.
- Mungiako kale erabilera %28,5 bueltan dabil baina Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan 2017an eta 2019an egindako azterketaren arabera, herritarren %31k jotzen dute udaletxera euskaraz (ahoz). Horrek esan nahi du herritarrek modu aktiboan eskatzen diotela udalari euskaraz funtzionatzeko, eta nahi dutela udalak hala erantzutea edo badakitela udalak erantzuten duela. (Inkesta horien arabera, herritarrak gustura daude HAZeko langileen hizkuntza-arretarekin)

#### • Zer hobetuak

- Lanpostu batzuk (Udaltzaingoa) hornitzeko erabiltzen den sistemak ez du bermatzen langileok duten lanerako ahozko erraztasun nahikoa denik, kontuan hartuta, gainera, euren lan kasu askotan oso sentsiblea dela.  
Beraz, langileon gaitasuna eta jarrera indartu behar da.
- Langileei, guztiei, hobeto komunikatu behar zaizkie hizkuntza-irizpideak, behin eta berriro egiten den arren, batzuek (gutxi batzuek, zorionez; eta ez jendaurrean daudenak) oraindik ez dituztelako barneratu. Zirrikitu guztiak zarratu behar dira.
- Udalak erabiltzen dituen ereduak berriro egin behar dira, eta egin barik daudenak sortu. Izan ere, ereduak oinarri-oinarrizko tresna dira langileek euren lana euskaraz errazago eta zuzenago egin dezaten.
- Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea (hizkuntzaren erabilerari dagokionez) aldian-aldian testeatzea ezinbestekoa da. Besteak beste: kiroldegia, musika eskola, HAZ, udaltzaingoa... Banaka edo denak batera.
- Herritarrak animatu egin behar dira administrazioa euskaraz jotzen.
- Horretarako, ezinbestekoa da on-line administrazioa (datozen urteetarako erronka nagusienetako bat) prest egotea eta erakargarria izatea. Hori erdietsi ahal izateko, parekidetasun irizpideak (ekintza positiboa) bete beharko ditu; hau da, euskarak daukan

egoera kontuan hartuta, euskarazko bertsioak errazagoa eta atsegina izan beharko du, herritarrek euskaraz sartzen anima daitezten.

- **Helburu estrategikoak**

**2.1.2.25.- Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.**

**2.1.2.26.- Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.**

**2.1.2.27.- Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.**

**2.1.2.28.- Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.**

**2.1.2.29.- Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.**

- **Adierazle mailako helburuak**

<b>2.1.2.25 Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
79.30	26.64	100.00	28.56	5.70	1.92	

Lehenengo hitzaz harago doan jarrera da hau, eta horixe da bilatzen duguna. Langile askok, baina, uste dute lehen hitz hori bera dela eskaintza aktiboa. Beraz, pedagogia lanean eragin beharko da. Horregatik ez da aurreikuspenen kopuruan alde handirik markatu.

<b>2.1.2.26 Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
88.80	37.30	100.00	42.00	11.20	4.70	

Zirrikituak betetzea ezinbestekoa da.

<b>2.1.2.27 Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
55.00	18.48	75.00	21.84	10.00	3.36	

Ahalik eta gehien euskaraz edota ele bietan eskaintzeaz gain, ezinbestekotzat jotzen da erabateko ele bitasun "simetrikoa" gainditzea apurka-apurka. Ezarrita dauden komunikaziorako hizkuntza-irizpideen gaineko pedagogia egin behar da.

2.1.2.28 Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen eta eskuratzen zaizkie dokumentuak.								
Hasierako egoera			Aurreikuspena			Aldea		
Eusk.%	Ele bi. %	Punt.	Eusk. %	Ele bi. %	Punt.	%	Punt.	
0.00	100.00	25.20	25.00	75.00	25.20	0.00	0.00	

2.1.2.29 Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.								
Hasierako egoera			Aurreikuspena			Aldea		
Eusk.%	Ele bi. %	Punt.	Eusk. %	Ele bi. %	Punt.	%	Punt.	
25.00	75.00	33.60	100.00	00.00	33.60	0.00	0.00	

Lehendik ezarrita dauden hizkuntza-irizpideak betearaztea da helburua (hizkuntza-irizpideei puntu honetan ez zaie aldaketarik egingo), txarto ulertu zaharrak alde batera utzita. Lau urtetan egoera hau guztiz iraultzerik egongo ez bada ere, ahalegin sendoa egin beharko da. Puntuetan alderik ikusten ez den arren, aldea nabarmena da.

## 2.2. eremua. LAN-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehienezko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	
57.40	281.26	490

### 2.2.1 arloa. BARNE-HARREMANAK

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
66.20	97.31	70.40	103.49	5.90	2.67

- **Egoera**

- Lan bilera zabalak euskaraz (edo bietara, tartekatuta) egiten dira, zinegotziak tartean daudenean ere bai. Sail batzuetakoak eta batzar txikiagoak, ordea, erderaz izaten dira.
- Ahozko lan-harremanak sailen batean euskaraz dira baina gehienetan gaztelaniaz.
- Idatzizko barne-harremanetan lan-bileretan gertatzen den gauza bera gertatzen da: oso mezu zabalak direnean, euskaraz; eta hartzaile gutxikoak edo bakarrekoak direnean, erderaz.
- Espediente batzuk euskaraz sortzen hasi dira langileak. Beraz, holakoetan euskarazko lan-harremana bermatuta dago.

- **Egindakoak**

- Hizkuntza-irizpideetan barruko lan-harremanetarako jarraibideak agertzen dira eta euron berri langile guztiei eman zaie.
- Espediente batzuk euskaraz sortzen hasi dira langileak. Espediente horietan hainbat beharginek parte hartzen dutenez, lan-harreman horiek euskaraz bideratzea lortu da.

- Taldeko ahozko trebakuntza-saioak egin dira sail pare batean (saileko batzarrak euskaraz egiteko eta euren arteko harremanak euskaraz bideratzeko).
- Euskaraldiak honetarako ere aprobetxatu dira. Arlo honetan nahiko igarri zen bigarren Euskaraldiaren eragina, hirugarrenak, ostera, ez zuen eragin nabarmenik izan.

- **Indarguneak**

- Langile eta politikarien arteko harremanetan nahiko ondo betetzen dira arlo honetako hizkuntza-irizpideak.
- Politikariek eta langile gehienek sentitzen dute presio “sozial” bat dagoela udalean barne harremanetan ere euskaraz funtzionatzeko.
- Gaitasun nahikoa dago udalean barne harremanak euskaraz izateko.

Langile batzuk espedienteak euskaraz sortzen hasi dira sail batzuetan eta horrek euskarazko harremanak indartu ditu. (Ikusi 2.2.5 atala)

- **Zer hobetuak**

- Laneko barne harremanetarako ezarritako hizkuntza-irizpideetan ekin egin behar zaie langileei, batez ere, sailtako buruen eta politikarien bidez, eurok eredu sendo izanda.
- Sailtako buruek barneratu egin behar dute euskarak, zerbitzu-hizkuntza izatetik harago, euren sailtako lan-hizkuntza ere izan behar duela. Izan ere, euren dagokie saileko batzarrak gidatzea eta euren sailetik ateratzen diren mezu nagusiak (elektronikoak...) kontrolatzea, gainera, eredu dira euren saileko lankideentzat.
- Jarraipen egokia egin ahal izateko, batzordeen eta batzarren kontrola hobetu beharko litzateke.
- Laneko barne harremanetan eragin zuzena dute barne harreman informalek, baina hori, eremu pribatukoa den neurrian, ez dago arautzerik. Horrek ez du esan nahi ez denik bultzatu behar. Euskaraldia eta Mintzataldeak (ahozko trebatze-saioak) formatu egokia izan daitezke horretarako. Edozelan ere, landu beharreko esparrua da.

- **Helburu estrategikoak**

**2.2.1.32.- Lan bilerak euskaraz egiten dira.**

**2.2.1.33.- Lankideen arteko ahozko lan-harremanak euskaraz izaten dira.**

**2.2.1.34.- Lankideen arteko harreman ez-formalak euskaraz izaten dira.**

**2.2.1.35.- Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.**

- **Adierazle mailako helburuak**

2.2.1.32 Lan-bilerak euskaraz egiten dira.						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
59.10	26,73	65.00	29,40	5.90	2,67	

Ez da erraza jakitea zenbat batzar egiten diren Udalean. Gainera, oso tipologia ezberdinetakoak daude. Beraz, hortik hasi beharko genuke; hortik eta pedagogia lanetik.

2.2.1.33 Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
50.70	28.66	51.00	28.83	0.30	0.17	

Langileek markatutako kopuru hori altutxoa dela ematen du. Baliteke bai, kasu batzuetan hala izatea, baina interpretazio zorrotzagoa eginez gero (hau da, era guztietako lan-harremanak, ez bakarrik errazenak edo azalekoenak), emaitza eskasagoa izan liteke. Beraz, lan-harremanen erdia –edozein lan motatan– euskaraz izatea helburu oso desiragarria iruditzen zaigu.

2.2.1.34 Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
44.90	0.00	50.00	0.00	5.10	0.00	

Ez da batere erraza urteetako harreman ez-formaletan eragitea. Emandako datua ez da, berez, batere txarra, hori bermatzea da datozen urteetarako helburua.

2.2.1.35 Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.								
Hasierako egoera			Aurreikuspena			Aldea		
Eusk.%	Ele bi. %	Punt.	Eusk. %	Ele bi. %	Punt.	%	Punt.	
18.84	73.91	27.27	80.00	20.00	29.40	7,25	3,10	

Zirrikituak zarratzea eta, batez ere, administrazio barruan elebitasun simetriko horretatik harago joatea da helburua. Salto txikia kopuruetan baina ez helburuetan.

## 2.2.2 arloa. KANPO-HARREMANAK

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>81.40</b>	<b>79,77</b>	<b>89.30</b>	<b>87.51</b>	<b>7.90</b>	<b>7,74</b>

- **Egoera**

- Sektore publikoko erakundeei, salbuespenak salbuespen, euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak, batzuetan eurotatik erdera hutsean etorrira ere.
- Sektore publikoko erakundeekiko ahozko harremanetan ere joera gorakoa da, astiro doan arren. Dena den, sarri askotan pertsona biren arteko hartu-emanak izaten direnez, gaztelera nagusitzen da.
- Erakunde pribatuekiko harremanetan ez da erakundeekikoetan bestean zaintzen euskararen erabilera. Langile batzuek oraindik ez dute irizpide hori kontuan izaten, gainera, enpresa asko erdaldunak dira. Hala ere, langileek emandako erantzunaren arabera, euskararen erabileraren datua ez da txarra.

- **Egindakoak**

- Hizkuntza-irizpideetan kanpoko lan-harremanetan jarritakoaren berri eman zaie langile guztiei.
- Dokumentazioari buruzko hizkuntza-irizpideak betetzeak berez-berez ekarri du kanpo harremanetako dokumentazioa ere ele bietan bidaltzea gehien bat.

- **Indarguneak**

Langileek esperientzia handia dute euskara zerbitzu-hizkuntza modura erabiltzen. Beharrezko gaitasuna eta herritarrekiko hizkuntza-ohiturak dituzte, beraz, bestelako erakundeekin ere euskaraz aritzeko oztoporik ez dago.

- **Zer hobetuak**

- Beti ere herritarrak lehenetsita, Udalak ez luke bereizketarik egin beharko, hizkuntzari dagokionez, herritarren eta bestelako erakundeen artean. Udalak azken horiekin ere harremanak euskaraz edo ele bietan bideratu behar ditu arau orokor modura, salbuespenak egon daitezkeen arren (enpresa kanpoa delako...).
- Horrenbestez, langileei gogoraraztea da kontua.
- Erakunde publikoekin (euskararen lurraldeetakoekin) apurka-apurka hitzarmenak egin daitezke. Hala ere, *de facto* eurei euskaraz zuzentzeak nahiko izan beharko luke, prozedura erraztearren eta normaltasuna lortzearren.
  - Enpresa pribatuei dagokienez, udalak modu proaktiboan egin behar du eskaria euskaraz. Izan ere euskarazko demanda sortzeko ardura ere badagokio, nahiz eta enpresa pribatu horietako batzuetatik jasoko duen erantzuna erdaraz izan.

- **Helburu estrategikoak**

**2.2.2.39.- Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harreman.**

**2.2.2.40.- Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.**

- Adierazle mailako helburuak

2.2.2.39 <b>Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.</b>								
Hasierako egoera			Aurreikuspena			Aldea		
Eusk.%	Ele bi. %	Punt.	Eusk. %	Ele bi. %	Punt.	%	Punt.	
35.00	35.00	29.40	75.00	20.00	31.50	5.00	2.10	

2.2.2.40 <b>Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie idatzizko komunikazioak.</b>								
Hasierako egoera			Aurreikuspena			Aldea		
Eusk.%	Ele bi. %	Punt.	Eusk. %	Ele bi. %	Punt.	%	Punt.	
0.00	90.00	50.40	25.00	75.00	56,00	10,00	5.60	

### 2.2.3 arloa. PRESTAKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>41.40</b>	<b>30.43</b>	<b>55.00</b>	<b>40.42</b>	<b>13.60</b>	<b>13.60</b>

- Egoera

Langileek prestakuntza mota bi jasotzen dituzte:

- Prestakuntza orokorra: udalak berak eskaintzen du edo kanpotik (IVAP...) jasotzen dute langileek.
  - Udalak ematen duen formazioan ez dira hizkuntza irizpideak askorik bete azken urteetan, besteak beste programa informatiko berri nagusiak gaztelaniaz daudelako, eta hori izan da prestakuntzaren zutabe nagusienetako bat. Gainerako gaien inguruan hobeto jagon da euskararen erabilera.
  - Langileek kanpotik jasotzen duten formazioaren euskarazko eskaintza ere nahiko eskasa da, IVAPena barne, eta dagoenean ere langileek gehienetan erdarazko moduluak lehenesten dituzte, teknikoegiak izango diren beldurrez.
- Euskarazko prestakuntza: era honetako prestakuntza bide bitatik ematen da:
  - Trebakuntzaren bidez, euskaraz lan egiteko gai diren langileei horretan trebatzeko formazioa ematen zaie.
  - IVAPeko berariazko ikastaroen bidez langileei euren lanari lotutako prestakuntza berezia ematen zaie.

- Egindakoak

- Prestakuntza orokorrari dagokionez: teknikariei (eurak izaten dira euren sailetatik formazioa bultzatzen dutenak) behin baino gehiagotan gogorarazi zaie formazio hori euskaraz eskaintzearen garrantzia, eta kasu batzuetan lortu da.



- Euskarazko prestakuntzari dagokionez:

- Euskara ikasteko edo euskara maila hobetzeko eskaintza, salbuespenak salbuespen (sail jakin bi), asko igo da azken urteetan. Horren adibide dira 2019tik 2022ra arte eman diren ordutegi osoko (2) eta ordu biko (18) liberazioak. 2023an, liberazioak utzi eta orduak konpentsatzeko bidea hartu zen.
- Trebakuntza-programak diseinatu eta gauzatu dira. Udaleko ia sail guztietako 68 langilek hartu dute parte saiootan. Eurotan idatzizko dokumentazioa ez eze ahozko ohiturak ere landu dituzte. Azpimarratzekoa da trebakuntzak urteotan izan duen aldaketa: ohiko trebatze-saioak izatetik, espediente administratiboak zerotik hastera. Hau da, lan unitatea ez da agiria izan, ezpada ze espedientea.
- “Euskarazko prestakuntzari buruzko jarraibideak” dokumentuan ezarrita dagoenez, lehentasuna ematen zaie euskarazko ikastaroen eskariei eta 4. HEa dutenek derrigorrean egin behar dituzte IVAPeko ikastaroak euskaraz, eskaintza egonez gero.

#### • Indarguneak

- Langileek gaitasun maila ona dute (salbuespenak salbuespen).
- Urteotan egindako bideak (euskarazko prestakuntzan) emaitza positiboak izan ditu.
- Langileek eta politikariek aldeko jarrera dute.

#### • Zer hobetuak

Prestakuntza orokorrean: zorrotz bete behar da langileak euskaraz formatzeko irizpidea, are gehiago, prestakuntza hori Udalak eskaintzen duenean. Kanpotik jasotzen denean, euskaraz egiteko aukera dagoen kasuetan, bermatu egin behar da lehentasuna ematen zaiela euskarazko ikastaroei.

Euskarazko prestakuntza:

- Euskara maila hobetzeko eskaintzari dagokionez, 2023an hartutako bideari ekin behar zaio.
- Trebakuntzak jarraitu egin behar du espedienteetan eta idazki-ereduetan oinarritzen. Horixe da trebakuntza eraginkorraren oinarria.
  - Adierazle egokiak bilatu behar dira egiten den lana kuantifikatzeko (bidalitako testuen laginak...).
  - Ahozkoa lantzen ere jarraitu beharko da sail jakin batzuetan.
  - Trebakuntzan arlo guztiek sartu behar dute. Eguneroko lana ezin da izan trebakuntzatik eta normalkuntza prozesuetatik kanpo edo bigarren mailan gelditzeko aitzakia.
- IVAPek eskaintzen duen berariazko prestakuntza-ikastaro batzuk hainbat langilerentzat izan daitezke interesgarri, beraz, udaletxean bertan eskaini beharko lirateke.

Euskarazko prestakuntzari dagokionean behintzat, langileak formatzeaz gain, ordezkari politikoei ere formazioa ematea oso aproposa izan liteke, bakoitzak udalean dituen beharrezan arabera.

- **Helburu estrategikoak**

**2.2.3.43.- Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.**

**2.2.3.44.- Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.**

**2.2.3.45.- Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei.**

- **Adierazle mailako helburuak**

<b>2.2.3.43 Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
25.00	6.43	50.00	12.86	25.00	6.43	

Jarritako zenbakia nahiko baxua da, erdia baino askoz gehiago izan beharko luke-eta. Hala ere, egindako laginketak utzitako datua oinarritzat hartuta, argi dago erdia ere salto kuantitatibo handia izango dela.

<b>2.2.3.44 Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
39.20	12.97	50.00	16.54	10.74	3.57	

<b>2.2.3.45 Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.</b>						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
75.00	11.03	75.00	11.03	0.00	0.00	

Trebakuntzari eutsi egingo zaio. Kontua ez da gehiago eskaintzea, ezpada ze formatu egokia topatzea. Orain arteko esperientzia oso positiboa izan da sail batzuetan, eta sortze-hizkuntzan aurrera egiteko ezinbesteko baliabidea izan da. Halaxe izaten jarraitzea da helburua.

## 2.2.4 arloa. BALIABIDE INFORMATIKOAK

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>28,00</b>	<b>20,58</b>	<b>50,00</b>	<b>36,75</b>	<b>22,00</b>	<b>16,17</b>

- **Egoera**

- Software estandarra, hau da, sistema eragilea eta office-a, erderaz dago gehien bat. Antza denez, bateragarritasun arazo bat egon da udalean erabiltzen diren idazki-eredu batzuekin eta Outlook-ekin.

- Programa bereziei dagokienez ere, gehienak eta, batez ere, garrantzitsuenak (espediente-kudeatzaile berria tarteko) gaztelaniaz daude. Bertan sartzen den dokumentazioa, berriz, ele bietan ateratzen da, baina, hala ere, arazoak ematen ditu euskara hutsean funtzionatzeko; posible bada, baina zailagoa da.

Hala eta guztiz ere, badira programa bereziak euskaraz funtzionatzen dutenak, kasurako, Liburutegiko mailegu-programa. Beste batzuk ele bietan daude eta langileek eurek aukeratzen dute zein hizkuntzatan erabili.

- Programak eurak gaztelaniaz daudenez, euron gaineko formazioa ere gaztelaniaz ematen zaie langileei.

\*Udalak ez du “Bizkaitik” erabiltzen, bere tresna propioak ditu.

#### • Egindakoak

- Pandemiaren eraginez aurreikusita zegoen baino arinago egin behar izan zen on-line funtzionamendurako saltoa (espedienteen gestore berriaren bidez) eta horrek kalte egin zien normalizazio-irizpideei.
- Euskara Sailak tresna berri horiek euskaraz jartzeko ahalegina egin duen arren, arlo honetan ezer gutxi aurreratu da azkeneko urteetan.
- Espediente-kudeatzailean, bere formatuaren arabera, sartu diren eta sartuko diren idazki-ereduak gainbegiratzen, zuzentzen eta prestatzen dabil Euskera Saila.

#### • Indarguneak

Hizkuntza-irizpideetan argi jasota dator zeintzuk diren lehentasunak eta betebeharrak. Eta horrek bermatu egiten du, zailtasunak zailtasun, aurrera egiteko konpromisoa. Gainera, argi dago hori posible dela, beste udal batzuetan hala egiten da eta.

#### • Zer hobetuak

- Software estandarra euskaraz jarri behar da. Egon badago merkatuan eta dagozkion aldaketak egitea litzateke. Behin eginda, nahiko.
- Berriazko programak apurka-apurka euskaratu (egitura bera eta han sartu behar diren idazki-ereduak), denok erabiltzen ditugunetatik abiatuta. Gogoan izan behar dugu, gainera, laster barru herritarrek sarbidea izango dutela Udalaren espediente-kudeatzailean; beraz, argi dago lehentasunezkoa dela.
- Tresna eta baliabide informatikoen gaineko formazioa euskaraz eman behar zaie langileei.
- Euren lanpostuak ezarritako gaitasuna egiaztatuta duten langileei ele bietan dauden programak euskara hutsean instalatu behar zaizkie. Hizkuntza aukeratzea langile bakoitzaren esku dagoen kasuetan, animatu egin behar dira horretarako.

#### • Helburu estrategikoak

**2.2.4.46.- Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.**

### 2.2.4.47.- Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.

- **Adierazle mailako helburuak**

2.2.4.46 Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
26.70	9.81	50.00	18.38	23.30	8.56	

2.2.4.47 Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
29.30	10.77	50.00	18.38	20.70	7.61	

Datozen lau urteetan Udalak izango dituen helburu nagusienetakoak dira goian markatutako bi horiek, kopurutan hala ematen ez badu ere. Itxuraz salto txikia dirudien arren, datozen urteetarako oinarria izango da.

### 2.2.5 arloa. SORTZE-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>54.40</b>	<b>55.31</b>	<b>55.00</b>	<b>53.90</b>	<b>0.60</b>	<b>0.59</b>

- **Egoera**

Trebakuntzari eta euskarazko tresna berriei esker, gero eta gehiago dira euren dokumentazioa euskaraz sortzen duten langileak. Oraindik asko ez badira ere.

- **Egindakoak**

- Trebakuntza-moduluak eskaini dira, formatu klasikoan eta egokituan.
- Sail batean (udaleko sailik handiena) espediente osoak oinarritik euskaraz sortzeko trebakuntza eskaini da eta emaitzak oso onak izan dira. Hala ere, lanpostu guztietan ez duela berdin funtzionatzen ikusi da.
- Orain idazki-ereduak egokitzeko prozesua daukagu abian. Horixe izango da eta, datozen urteetarako bidea.

- **Indarguneak**

- Udaleko sailik handiengan bide hori hartu izanak segurtasuna eta autoritatea ematen du beste sail batzuetara jotzen denerako.

- Nondik jo badago, materiala eta bidea zehaztuta. Beraz, egin egin behar da, eta informatikako tresnekin dagoen borrokari eutsi behar zaio.
- Langileek (gehien-gehienek) gaitasun-maila egokia dute euren agiriak euskaraz sortzen hasteko.

- **Zer hobetuak**

- Espedienteen sorreratik ahalegina egin behar da euskaraz funtzionatzeko (programa informatikoez sortzen dituzten oztopoak identifikatu eta zuzendu behar dira).
- Agiri-ereduak euskaratu edota zuzendu egin behar dira eta ahalik eta eredu gehien sortu, eurok izango dira-eta euskaraz sortzeko tresna nagusia.
- Trebakuntzak sail guztietara zabaldu behar du lan egiteko modu hau. Prestakuntzaren atalean esan bezala, eguneroko lana ezin da aitzakia izan sail/langile batzuk betebeharrak hauetatik kanpo uzteko.
- Adierazle argiak ezarri behar dira.

- **Helburu estrategikoak**

**2.2.5.48.- Langileek euskaraz sortzen dituzten dokumentuak.**

- **Adierazle mailako helburuak**

2.2.5.48 Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.						
Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea		
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
54.40	53.31	55.00	53.90	0.60	0.59	

Adierazle hau langileek eurek emandako datuetatik atera da. Kontua da, baina, euretariko batzuek zeri deitzen dioten “euskaraz sortzea”. Kopuru hori egonkortzea eta sendotzea da helburua.